



**Euskal Herria**



**Europar Batasunean**

# AURKIBIDEA

Hitzaurrea	3
Sarrera	5
1. Ezaugarri fisikoak eta biztanleria	5
2. Oraingo egoera eta ekonomiaren susperraldia	10
3. Europako batasunaren laguntzak, EAE-ren aldekoak	21
4. Europako Laguntzaren eragina EAE-N	33
Oinarrizko Bibliografia	37



## HITZAURREA

*Europako Batzordeak Espainian duen Ordezkaritzak "Espainiako Autonomia Erkidegoak Europako Batasunean" idazlanaren 3. argitaraldia atera du, hogei fa szikulutan. Lehena atarikoa, Espainia osoa hartzen duena; hurrengo hamazazpiak, autonomia-erkidego - etako bakoitzeko bat; beste bat Ceutakoa eta azkenik Melillakoa.*

*Aurreko argitaraldietan bezala eskualde-mailakoa izan da ikuspegia, hortaz, Egitura Funtsak, Lotura Funtsak eta erkidegoko ekimenak direla bide eskualde bakoitzean burutu diren egitura-ekintzak azpimarratzen dira. Erkidegoko ekimenen ondoriozko zenbait ekital - di erakusten dira hemen, baita ebaluazio bat ere, ekonomia-hazkunderari eta benetako elkar - ganatze-prozesuari egitura-ekintzek egindako ekarpenari buruzkoa.*

*Argitalpen honetan eskualdeetan izandako egitura-ekintzen eragina aztertu bada ere, ezin da ahaztu itunen helburua, hots, lotura ekonomiko-soziala, berariaz aldarrikatzen baita politika europar guztiek horra begira egon behar dutela. Horregatik, eta egitura-ekintzak 1999 urtean erkidegoko aurrekontuaren %35 izango diren arren, ez dira begibistatik galdu behar bestelako politiken eragina kohesioan, batez ere Nekazaritzako Politika Bateratuarena (NPB).*

*Europako Batasuna aurrera doalako hiru froga dauzkagu: beste itun bat, Amsterdamgoa, indarrean jarri izana; 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera euroaren hedapena hamaika herrialdetara; eta merkatu bateratua izatea.*

*Hala eta guztiz ere, ezin ditugu Batasunaren erronkak ahaztu, horiek bideratzen saiatzen baita Europako Batzordea bere Agenda 2000 agirian. Eta, laburbildurik, honako hauek dira: batasunaren politikak hobetu beharra, kideku nahi duten herrialdeei laguntzea, eta finantza-esparru berri bat ezartzea. Agenda 2000 agirian jasotako Batzordearen proposa - menak abiapuntuak izango dira Kontseiluak eta Europako Parlamentuak erabakiak har dit - zatan, zeinen eragina onuragarria izango baita Batasunaren kide diren herrialdeen lotura ekonomiko-sozialerako.*



Miguel Moltó

EUROPAKO BATZORDEAREN  
ESPAINIAKO ORDEZKARITZAKO ZUZENDARIA



# SARRERA

1978. urteko Konstituzioaren eskutik sortu zen Espainian Autonomietako Estatua. Euskal Autonomia Erkidegoa Estatuan dauden hamazazpietariko bat da. Europako Batasunaren ikuspegitik NUT 2 eskualdea da, eta Nafarroa, Errioxa eta Aragoarekin batera NUT 1 Iparrekialdeko eskualdea osatzen du. Espainia Europako Batasunari atxiki zitzaionetik Euskal Autonomia Erkidegoak hainbat laguntza eskuratu du Egitura Fondoetatik.

## 1. EZAUGARRI FISIKOAK ETA BIZTANLERIA

Euskal Autonomia Erkidegoak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa hartzen ditu. Europako Batasuneko NUT 2etako batez besteko tamaina kontuan hartuz, azalera txikikoa da, baina biztanle ugari dauzka. Azalera 7.261 km<sup>2</sup>koa da, hau da hamabost estatuetakoa (EUR15) Europako Batasunaren %0'2, eta Espainiaren %1'4 (1. taula). Iberiar Penintsulako iparraldean dago, Bizkaiko Golkoa eta Ebroko Harana bitartean. Kokagunea nabarmena da; izan ere, Pirinioetako mutur batean dago, Frantziarekiko mugan (Akitania aldetik), Irun hiria dauka estatu arteko pasalekuan, itsasora irekita dago (Bilbao eta Pasaia portuak), Kantauriko komunikabideen gurutzan eta Lisboa-Madril-Paris ardatzaren erdian, eta lotura egiten du Mediterraneoarekin Ebroko haranean barrena; balio estrategiko handikoa da azken batean. Ekonomiaren aldetik, Kantauri-hegian dago, Kantabria eta Asturiasekin batera, Galizia ere sar daitekeen arren. Europatik begiraturik, Arku Atlantikoa osatzen du. Arkua Europa ertzetako lurralde zabala da, hor ere sartzen baitira Eire, Eskozia, Ingalaterrako mendebala, Gales, Frantziako mendebala, Galizia eta Portugal.

Euskal Autonomia Erkidegoak, ingurune fisikoari dagokionez, erliebe malakarra du eta, giza inguruneari dagokionez, kostaldea oso hiritartua. Klima atlantiko da kostaldean (Bizkaia eta Gipuzkoa), tenperatura epelak (10° eta 20° bitartekoak) eta euri-jasak ugariak ditu, batezbestez 1200 mm urtean. Araban, ordea, klima gogorragoa da, eta gorabehera handiak izaten dira negutik udara, klima kontinentalak berezkoa duen bezala.

## ONARRIZKO MAGNITUDEAK. I

	EUR15	ESPAINIA	EAE
<b>Azaleraren %</b>	100,0	15,6	0,2
<b>Biztanleriaren %</b>	100,0	10,5	0,6
<b>BPG<sup>1</sup> esp<sup>2</sup> %tan (1995)</b>	100,0	8,1	0,6
<b>BPG biztanleko oap %tan (1995)</b>	100,0	77,0	82,0
<b>Biztanleen dentsitatea (1995)</b>	116,8	78,0	285,4
<b>Biztanleriaren bilakaera %tan (1981-1991)<sup>3</sup></b>	0,3	0,3	-0,1
<b>25 urtetik beharako biztanleria %tan (1996)</b>	30,7	32,7	29,4
<b>65 urtetik gorako biztanleria %tan (1996)</b>	15,5	15,4	15,1
<b>Lan-merkatua</b>			
<b>Jardueratasa<sup>4</sup> (1995)</b>	55,2	48,2	49,5
<b>Gizonezkoen jarduera - tasa (1995)</b>	66,2	61,9	61,9
<b>Emakumezkoen jarduera - tasa (1995)</b>	45,0	35,4	37,8
<b>Langabezia - tasa (1996)</b>	10,9	22,3	21,5
<b>Gizonezkoen langabezia - tasa (1996)</b>	9,7	17,8	17,2
<b>Emakumezkoen langabezia - tasa (1996)</b>	12,5	29,5	28,1
<b>25 urtetik beharako langabezia-tasa (1996)</b>	21,4	41,9	49,5
<b>Enpleguaren egitura (1997)</b>			
<b>Nekazaritza</b>	5,0	8,3	2,7
<b>Industria</b>	29,4	29,9	36,9
<b>Zerbitzusk</b>	65,3	61,8	60,4

Iturria: EUROSTAT, Régions, Annuaire Statistique, 1996; Régions, Statistiques en Bref, 3 et, 1996, eta Statística in Focus, 1 et, 1996.

<sup>1</sup>BPG: Berrak Produktu Gordinak. <sup>2</sup>esp: espainiarren jarduera-tasa. <sup>3</sup>EUROSTAT. <sup>4</sup>Biztanleko aldiaren eta lan egiteko aldiaren erlazioaren erlazioa.

1997. urtean 2.092.349 biztanle zituen. Kopuru hori EUR15koaren %0'6 da, eta Espainiako biztanleria osoaren %5'4 (2. taula). EAEko azalera eta biztanleria Estatuarekin alderatuz gero, Espainiako eta are Europako batez besteko dentsitateak gora dagoela ikus daiteke. Hala ere, azken urteotan biztanle-kopurua, jaisteko ez bada, mantentzeko joera ikusi da. Horren arrazoia, batetik, hazkunde begetatiboaren murrizketa izan da eta, bestetik, etorri direnak gutxiago izan direla kanpora joan direnak baino. Berezko ugalketa gutxitzea orokorra da Espainian eta Mendebaldeko Europan. Aitzitik, "kontrako emigrazioa" izatea berezkoa dute lehenago erakarpen demografikoa zuten aldeak. Ildo horretatik doaz, hain zuzen, Katalunia, Madril eta Euskadi, eta horiek dira aspaldian penintsulako barrualdeko, Galiziako eta Andaluziako jendeak erakartzen zituztenak.

OINARRIZKO MAGNITUDEAK II					
1997. urtea	ESPAINIA	EAE	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Azaleria km <sup>2</sup>	504.750	7.281,0	3.047,0	1.997,0	2.217,0
Biztanlegoa	39.771.302,0	2.092.349,0	275.480,0	661.581,0	1.128.809,0
Biztanlegoaren %	100,0	5,3	0,7	1,7	2,8
BPG %	100,0	8,0	0,9	0,9	0,9
BPGren hazkunde-tasa					
1988-1991 epealdia	4,4	3,8			
1992-1993	-1,0	-1,5			
1994-1997	2,9	3,2			
1988-1997	3,0	2,7			
Hekazartzearen zatia BPGn	5,3	1,9	2,1	2,1	1,8
Industriaren zatia BPGn	22,1	35,2	59,2	32,8	33,0
Enkuntzearen zatia BPGn	7,5	8,1	4,8	7,1	7,2
Zerbitzuen zatia BPGn	65,2	56,8	53,9	58,0	57,8


Iturria: IEA fondazioa, Iturri Bilko Vizcaya "Evolución reciente de las macrovariables regionales en España" Julio Alonso Trovati.

1997. urtea	ESPAINIA	EAE	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
BPG biztanleriko	1.999.274,0	2.238.870,0	2.288.816,3	1.886.094,9	2.032.015,2
BPG biztanleriko (Espainia=100)	100,0	111,9	126,7	103,8	113,4
BPG biztanleriko (Europa=100)					
Eskaerak emanda gordina biztanleriko	100,0	117,4	151,9	109,8	121,1
Familien emanda gordina eta	100,0	113,0	121,8	110,5	114,3

Oharra: estatistikan datuak 1996koak dira.  
Iturria: FURCAE, Cuadernos de Información Estadística, 102-103 de, 1996.

Biztanleriaren hazkunde begetatiboa edo berezkoa (jaioberrien eta hildakoen arteko aldea) moteltzen hasi zen hirurogeiko hamarkadan eta hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, eta beheraka hasi zen azken bost urteetan. Oraindik goraka zihuan 1990. urtera arte, baina 1991-95 epealdian 4.752 pertsona gutxiagoko saldoa ematen du, hau da %0'08 urteko metatze-tasa; 1971-81 hamarkadan ordea %8'9 zegoen batezbestez, eta hurrengo hamarkadan 1981-91: %0'55. Beheraka joate hori jaiotzen gutxitzearen eta heriotzen ugaltzearen ondoriozkoa da, eta hori gertatzen bada biztanlegoa zahartu delako da, bizitza-itxaropena luzatu den arren. Estatuan beste horrenbeste gertatzen da.

Migrazioen emaitza (inmigrazioak ken emigrazioak) negatiboa da 1987. urteaz geroztik, eta gehieneko balio absolutua (urteko hamar mila lagunetik gora) 1989-90 urteetan lortu zuen. 1991-95 epealdian kopurua 30.676 lagun gutxiagotara jaitsi zen, horrek esan nahi du urtean %0'13 jaitsi dela batezbestez, 1991. urtean zegoen biztanleriarekiko. Oro har, benetako hazkunde-tasa (berezko hazkundera eta migrazio-saldoa) %0'21era jaitsi zen, urteko batez bestekoan. Aldaketa horiek guztiak hobeki ikusten dira 1. grafikoan.



Zeharkako analisia eginez gero, ikusiko genuke 1981-91 hamarkadako jaiotze-tasa gordina eta hazkunde demografikoa txikiagoa izan dela EAEn, Espainiako eta Europako eskualde gehienetan baino. Horren arrazoia zera da: jaiotzak+inmigrazioak aldagaia gutxitu den artean, hildakoak+emigrazioak delakoa handitu egin da. Ondorioz, biztanleriaren piramidean oinarria, 25 urtetik beherakoak, estuagoa da EAEn (%29'4, 1996an) Espainian baino (%32'7) eta EUR15ean baino (%30'7). Piramidearen erpina ere, 65 urtetik gorakoak, estuagoa da: Euskadin %15'1, Espainian %15'4, eta Europan %15'6. Bi gertakari horiek batera (oinarria eta erpina estuagoak) agertzen direnean, enborra ohi baino lodiagoa izaten da.

Piramidearen enborra EAEn %55'5ekoa da, hots, bi puntu gehiago Europako batez bestekoa baino (%53'7), eta ia lau puntu gehiago Estatuan baino (%51'9). Horren arrazoia, hein batean behintzat, 60 eta 70 hamarkadetakako inmigrazio-saldoen emaitza izan daiteke. Horren eragina ez da soilik gizar-te-arlokoa, ekonomiakoa ere bada; ezin baita ahaztu biztanleria-geruza hori (25-65 urte bitartekoa) bat datorrela lan egiteko adina daukanarekin.

Biztanleriaren dentsitatea (285'4 biztanle km<sup>2</sup>ko, 1995ean) nabarmen handiagoa da Europako batez bestekoa baino (116'8 bizt/km<sup>2</sup>), eta are handiagoa da Espainiakoa baino (78 bizt/km<sup>2</sup>); lehenengoa eta azkenaren arteko erlazioa 4:1 da. Dena dela, biztanleak ez dira era berean banatzen lurraldean:

Bizkaian 538 bizt/km<sup>2</sup> gainditzen bada (neurri handi batean Bilbao inguruko hiri-barrutia dela-eta), eta Gipuzkoan 350 bizt/km<sup>2</sup> inguruan badabil, Araban ordea dentsitatea ez da iristen 100 bizt/km<sup>2</sup>tara. Hala eta guztiz ere, orain arteko hiri-bilguneen kokapena ez dator bat azken urteotako bilakaerarekin. Araba izan baita biztanle-hazkunderik handiena izan duena, eta hori da biztanle gutxien daukana; Bizkaian eta Gipuzkoan ordea biztanleria mantendu, edo behar-ka hasi da. Horren kariaz, biztanleria-kopuru osoa aldatzeaz gain, egitura ere aldatuz doa.

## 2. ORAINGO EGOERA ETA EKONOMIAREN SUSPERRALDIA

Gauza jakina da Kantauriko hegia gainbehera etorritako eskualdea dela. Kantauriko hegia ekonomia-ardatz gisa hartzen bada, osatzen duten erkidegoek (Asturias, Kantabria eta EAE) hainbat ezaugarri komun dituztelako da: elkarren ondoan daude, ekonomia-egitura antzekoak, nekazaritza-sistemak, industria-sektoreen ezaugarriak, oinarrizko ekoizpenen espezializazioa, etab. Baina Estatuko eta Europako beste eskualde batzuen aldean gainbehera dator. Dena dela, gainbehera etortze hori moteldu egin da, eta euskal ekonomiaren kasuan, pizten hasi da, hazkunde-tasak batez bestekotik gora jartzen baitira.

### 2.1.- Ekoizpena eta errenta

Eskualdeko produktua %2'6 urtean handitu zen 1986-97 epealdian, Espainiako ekonomiaren %3ko hazkundearen aldean (3. taula); hau da, lau hamarren gutxiago. Hala ere, tasa horiek ez dira beti berdinak, ez denborari, ez sektoreei dagokienez. Denboraren aldetik, laurogeiko hamarkadaren bigarren bosturtekoaren ziklo hedakorren ondotik 1992-93 aldiaren krisia etorri zen, laburra bezain larria. EAEko ekonomia Espainiakoa baino bortitzago astindu

**Barne Produktu Gordina: MAILA, EGITURA ETA ALDAKUNTZA-TASAK**

BPG	EAE				ESPAINIA			
	1.986	1.991	1.994	1.997	1.986	1.991	1.994	1.997
Guztira	2.079.019	2.514.977	2.489.259	2.775.714	32.593.012	40.833.437	40.949.569	44.833.388
Nekazaritza	63.429	73.755	59.822	56.283	1.074.806	2.598.459	2.333.864	2.546.028
Industria	979.583	1.041.013	1.004.268	1.189.828	8.351.921	11.167.933	10.774.359	11.506.431
Finantza	97.826	141.098	166.888	166.573	3.132.379	3.378.218	2.465.890	3.184.345
Zerbitzuak	1.039.242	1.259.140	1.299.283	1.388.030	19.099.103	23.789.829	24.982.413	29.862.992
Egitara								
Nekazaritza	3,0	2,9	2,4	2,1	6,1	6,4	6,3	6,4
Industria	42,3	41,4	40,2	42,1	26,7	27,3	29,4	26,8
Finantza	4,7	5,6	6,8	6,7	8,5	8,0	7,2	7,1
Zerbitzuak	50,0	50,1	50,6	50,1	59,7	58,3	56,9	59,9
<b>Aldakuntza-tasak</b>	<b>1.986-91</b>	<b>1.992-93</b>	<b>1.994-97</b>	<b>1.986-97</b>	<b>1.986-91</b>	<b>1.992-93</b>	<b>1.994-97</b>	<b>1.986-97</b>
Guztira	3,8	-2,8	3,5	7,8	4,8	-2,2	3,2	3,0
Nekazaritza	3,1	-8,1	-0,3	-0,8	8,8	1,0	4,0	3,4
Industria	3,5	-4,9	5,1	3,8	3,8	-5,1	3,5	2,2
Finantza	7,8	-3,0	2,8	4,4	9,0	-6,8	2,9	3,7
Zerbitzuak	3,8	0,8	2,6	2,7	4,6	-0,7	3,0	3,1

(Iturria: 1998ko estatistikaren beraria: FUNGAS)

zuen. Baina 1994tik aurrera euskal ekonomia batez bestekotik gora hazi da: %3'5 (batez bestekoa: %3). Baina handiak badira irregulartasunak denboran zehar, are handiagoak dira sektoreen arteko diferentziak. Ekonomia-susperraldiaren bultzatzailea industria izan da; izan ere, industria da euskal ekonomiaren erakusgarria. Azken lau urteotan urteko %5'1eko metatze-tasa izan du. Hala ere, 1986-97 hamarkadaren tasarik handiena eraikuntzakoa da (batezbestez %4'4).


EAEk azken hamarkadetan jasan duen beherakadaren arrazoiaren artean egitura-aldaketa izan da garrantzitsuetako bat. Industria-sare zaharra krisian sartu eta birmoldaketa egin beharrez egon zen, ordurarteko tamaina murriztu behar izan zuen, eta lanpostu ugari galdu zituen. Aldaketaren nondik norakoa handia izan arren, ez ditu horregatik aldatu ohiko ezaugarri batzuk. Sektoreen artean diferentziak egon arren, ekoizpen-egitura egonkor mantendu da azken hamarkadan. Gehienez ere, %1 igaro da nekazaritzatik eraikuntzara, baina sektore handiek (industria eta zerbitzuak) abiapuntuko mailei eutsi diete. Estatuko ekonomiaren esparruan, ordea, mugimendu gehiago egon da sektoreen artean.

Nekazaritzaren garrantzia —beti Espainiako batez bestekotik behera— gero eta txikiagoa da (%2'1, 1997 urtean, eta Espainian %6'4). Bilakaera, ordea, badirudi gelditu dela azken hamarkadan, hein batean Europako laguntzen eragin egonkortzaileagatik, bestetik, sektorean egindako aldaketengatik, eta azkenean, dagoeneko oso behean dauden mailak nekez jaitsi daitezkeelako.

Nekazaritzaren ezabatze horrekin batera, arian-arian "hirugarren" sektore-rantz abiatu da ekonomia. EAE betidanik egon da atzeraturik zerbitzuen arloan —batez ere salmentaren ingurukoetan— Estatu osoaren aldean; azken urteotan, ordea, horrelako jarduerak areagotu egin dira, baina, hala ere, ez dira oraindik finkatu. Ikus daitekeenez sektorearen garrantzi erlatiboa Barne Produktu Gordinaren %50ean mantendu da 1986-97 epealdian; hau da, gutxi gorabehera hamar puntu Espainiako batez bestekoaren azpitik, zeinak bai gora egin duen azken hamarkadan.


Hala eta guztiz ere, bitxitasunik handienak industrian ikusten dira. Krisiak gertatu eta birmoldaketak egin, baina 1975-85 hamarkadan hazkunde-diferentziala gehien bultzatu duen sektorea industria izan da; eta hori izan da, orobat, azken susperraldiaren bultzatzailea. Horiek horrela, badirudi izaera zikli-

koa daukala. Sektoreak Espainiaren batez bestekoa bezainbeste hazten dira 1986-1993 urte bitartean (ikus 3. taula). Baina, batera joate hori laurogeita hamarreko hamarkadan eten zen, euskal industria sendotu baitzen. Eraikuntzaren bilakaeran, bestalde, hain berezkoak dituen boladak nabaritu dira. Izan ere, krisi-garaian, 1975-85 bitartean, erorialdi nabarmenak izan bazituen ere, susperraldia izan du laurogeiko hamarkadaren azken urteetan, non batezbestez %7'6ko hazkunde-tasak ikusi baitira.



Eskualdeko Barne Produktu Gordina EUR15eko %0'5 eta Espainiako %6 zen 1997. urtean. Askoz nabarmenagoa da BPG per cápita. EAE eskas samar agertzen da Europaren esparruan, baina aberatsago Espainiako eskualdeen batez besteko haztatua baino (2. grafikoa), nahiz eta lehen baino pobregoa. Gertaturiko aldaketaren berri izateko, nahikoa izango da gogoratzea hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdi aldera 105 indizea gainditzen zen, (EUR15=100) batez besteko oinarria harturik. Orduz geroztik okerrera jo du etengabe, 1985ean gutxienezko maila iritsi zuen arte (78'9). Gero, Espainia Europako Batasunean sartzearekin batera, elkartze-prozesu bat egon zen, eta gorabehera batzuk salbu, 85'6raino igo zen indizea 1996an. Datuak Espainiako batez bes-

tekoarekin alderatuz gero, Kantauriko Hegiaren beheraldia, orokorrean, eta EAERena, bereziki, zorrotzagoa agertuko litzateke (3. grafikoa).



## 2.2.- Lan-merkatua.

EAEko biztanleria aktiboa 883.000 pertsonen batezbestez 1997. urtean (4. taula). Jarduera-tasa %50'3koa da, beraz, Espainiako batez bestekoaren antzerakoa, baina ia sei puntu EUR15koaren azpitik (55'2 1995ean). Diferentzia horren zergatien artean emakumezkoen jarduera-tasa txikiak daude, baina gizonezkoen tasak ere txikiagoak dira. Biztanleria okupatua 714.600 bizilagunez osatu zen, 1991ko maila gaindituz. 1986 eta 1997 urte bitartean ehun mila lanpostu neto sortu dira, urteko metatzeko %1'3, Espainiako %1'5aren aldean. 1998ko lehenengo hilabeteetan egoera hobetuz joan da, baina motelago, zikloaren gailurra 1997ko lehenengo seihilabeteetan izan baitzen.

Langabeen urteko batez bestekoa 168.500 da. Ondorioz, langabezia-tasa %19'1ra iritsi zen, Espainiakoarena baino beheragoxe, urte horretan %20'8koa izan zena. Baina EUR15ekoarekin alderatuz gero, hemengo langabezia-tasa

Europakoaren bikoitza da (%10'9, 1995ean). Langabeen kopuruan batez ere emakumeak eta gazteak sartzen dira. Gazteen langabezia-tasa (%49'5, 1996an) zortzi puntu handiagoa da Espainiakoa baino, eta 2'3 aldiz handiagoa Europakoa baino. Emakumeen langabezia-tasa, bestalde, hamaika puntu handiagoa da gizonena baino.

LAN-MERKATUA: OINARRIZKO MAGNITUDEAK								
	EAE				ESPAÑA			
	1.986	1.991	1.994	1.997	1.986	1.991	1.994	1.997
16 urteik gorakoak	1.642,3	1.716,1	1.750,4	1.757,3	20.927,8	32.690,1	31.566,1	32.345,1
Aktiboak	813,2	868,6	885,2	883,0	13.813,8	19.073,1	18.486,3	18.121,0
Okupatuak	618,8	708,5	664,9	714,6	10.880,9	17.608,4	11.730,1	12.764,5
Langabeak	194,4	161,0	220,2	168,5	2.933,0	2.463,7	3.736,1	3.356,4
Jarduerak	48,5	50,7	50,8	50,8	47,8	48,1	46,0	46,8
Okupazio-tasa	37,7	41,3	36,0	40,7	37,6	41,1	37,2	36,4
Langabezia-tasa								
Guztira	23,8	18,5	24,8	19,1	21,2	16,3	24,2	20,8
Nekazaritza	7,8	1,5	6,4	8,0	12,8	12,8	16,3	16,9
Industria	13,2	7,4	12,4	8,4	14,9	10,1	16,3	10,3
Garapena	26,9	11,8	22,4	14,8	30,5	16,2	26,2	19,9
Zerbitzuak	10,4	9,8	14,2	10,8	13,2	9,1	14,5	11,3

Oharri: Balio absolutuak, milioiak.  
 Burua: IM, "EPA" eta berrien eginkizak.

Enpleguaren bilakaeran ondo baino hobeki ikusten dira ekoizpen-egituraren aldaketak eta krisi sakona (5. taula). Atal honetan adierazleek berrikuntza bat agertzen dute, zikloaren azken aldaketarekin batera. EAE, gainerako autonomia-erkidegoen, tokirik txarrenetariko batean egotetik Estatuko batez bestekotik gora egotera igaro da 1990eko hamarkadaren erdialdetik. Lanpostuen galerarik handienak 1975-85 hamarkadan gertatu ziren. Zerbitzuen hedapenak ezin izan zituen bereganatu gainerako sektoreetan izandako galerak, beraz biztanleria okupatuaren murrizketa egon zen termino absolutuetan. Hala ere, joera hori 1986-97 hamarkadan aldatu zen, eta enpleguaren maila absolutuak berreskuratu ziren, zerbitzuen eskari sendoari esker. Kontrapartean, nekazaritza eta industriako lanpostuak galdu zirela esan behar da. Industrian, zehazkiago, 1991eko mailak behera egin zuen nabarmen 1992-93 aldian, eta berriro ere ikus dezakegu industria, nekazaritzaren ildotik, pisua galtzen ari dela.

EAEk ezaugarri bereziak gordetzen ditu, behe-mailako teknologiaren arloko jarduerekin loturikoak, eraldaketa sakonak eta zaharberritze-prozesuak

## OKUPAZIDA: MAILA, EGITURA ETA ALDAKUNTZA-TASAK

	EAE				ESPAINIA			
	1.986	1.991	1.994	1.997	1.986	1.991	1.994	1.997
<b>OKUPATUAZ</b>								
Guztira	618,8	756,3	664,9	714,8	10.860,9	12.609,4	11.730,1	12.764,6
Nekazaritza	30,6	26,7	21,6	16,6	1.757,8	1.346,1	1.161,9	1.097,4
Industria	229,4	242,8	196,7	210,8	2.836,3	2.860,2	2.473,6	2.590,3
Enkuntza	37,1	52,8	53,0	54,8	831,3	1.273,5	1.088,7	1.242,7
Zerbitzuak	320,9	392,1	393,6	430,8	6.834,7	7.100,7	7.046,8	7.874,2
<b>EGITURA</b>								
Nekazaritza	4,9	3,9	3,3	2,8	16,2	10,7	9,8	8,4
Industria	37,1	34,3	29,8	29,5	24,3	22,8	21,1	20,2
Enkuntza	6,0	7,3	6,0	7,7	7,7	10,1	9,0	9,7
Zerbitzuak	51,9	56,3	59,2	60,3	61,9	58,3	60,1	61,7
<b>ALDAKUNTZA-TASAK</b>	<b>1.986-91</b>	<b>1.992-93</b>	<b>1.994-97</b>	<b>1.986-97</b>	<b>1.986-91</b>	<b>1.992-93</b>	<b>1.994-97</b>	<b>1.986-97</b>
Guztira	2,7	-4,8	2,4	1,3	3,0	-4,3	2,9	1,5
Nekazaritza	-7,5	17,2	-5,1	-4,5	-2,2	-4,4	-2,5	-4,4
Industria	1,1	-12,3	2,3	-0,8	1,8	-9,4	1,4	-0,2
Enkuntza	7,4	-3,4	1,1	3,0	8,9	-9,0	5,3	3,7
Zerbitzuak	4,1	-1,3	3,1	2,7	4,7	-1,4	3,8	3,1

Oharri: Datuak abiaraziz erabiltzen dira.  
Sursa: INE, "IPIA" eta besten aginduz.

izan dituztenak. Horren kariaz industriak, azken hamarkadetako galerak eta guzti, pisu handia dauka oraindik ere (BPGaren %42 eta enpleguaren %30), hau da, 15 puntu Espainiako batez bestekoaren gainetik.

### 2.3.- Ekoizkortasuna

EAE Estatu Espainolaren eskualderik aberatsenetarikoa izan da mende hasieratik. Maila hori 1960ko hamarkadan eta 1970eko hamarkadaren hasieran finkatu zuen. Hala eta guztiz ere, orduz geroztik krisi-garaia etorri zitzaion, Espainiako eta Europako eskualde gehienetakoa baino zorrotzagoa.

EAEko ekoizkortasuna %1'3ko tasan hazi zen urtean 1986-97 aldian, bi hamarren batez bestekoaren azpitik, eta Kantabria eta Asturias baino dexente gutxiago. 1997. urtean 3'9 milioi pezeta langileko zen (ikus 6. taula). Sektoreka, mailarik garaiena industriari dagokio, 5'5 milioi pezetarekin, eta mailarik behe-rena eraikuntzari, 2'9 milioirekin. Espainiako batez bestekoa kontuan hartuz gero, posizioak okerrera jo du baina oso motel, hortaz, %112ko indizetik, 1986an, 110era igaro da, 1997an. Dena dela, batez bestekoak alderatzean ez ditugu ikusten hain uniformeak ez diren ibilbideak. Esaterako, nekazaritza eta

industriako sektoreen ekoizkortasun-indizea 120koa da, eta bistan da zerbitzuen %94arekin dagoen alde. Kontuan hartzen badugu zerbitzuek gaur egungo ekonomietan duten eragin itzela, EAEko ekoizkortasun-defizita eskualdeko ekonomiarako eragozpena izan daiteke.

EKOIZKORTASUNA: MAILA, EGITURA ETA ALDAKUNTZA-TASAK								
	EAE				ESPAINIA			
	1.986	1.991	1.994	1.997	1.986	1.991	1.994	1.997
<b>EKOIZKORTASUNA</b>								
Guztira	3.560	3.558	3.757	3.877	3.940	3.228	3.482	3.512
Nekazaritza	2.074	2.558	2.788	3.207	1.124	1.930	2.202	2.895
Industria	3.630	4.287	5.105	5.540	3.547	3.864	4.355	4.827
Eraikuntza	2.640	2.872	2.732	2.860	2.585	2.972	2.792	2.570
Zerbitzuak	3.258	3.211	3.276	3.223	3.388	3.261	3.488	3.410
<b>Egitura</b>								
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Nekazaritza	58,7	72,0	73,8	82,7	28,5	59,8	63,2	76,8
Industria	101,4	120,8	135,9	142,9	89,9	119,3	125,1	131,7
Eraikuntza	74,8	79,2	72,7	73,8	65,7	78,4	80,2	73,2
Zerbitzuak	96,4	90,5	87,2	83,1	85,9	101,5	100,2	97,1
<b>Aldakuntza-tasak</b>	<b>1.986-91</b>	<b>1.992-93</b>	<b>1.994-97</b>	<b>1.986-97</b>	<b>1.986-91</b>	<b>1.992-93</b>	<b>1.994-97</b>	<b>1.986-97</b>
Guztira	1,1	1,8	1,1	1,3	1,8	2,0	0,3	1,8
Nekazaritza	11,4	-22,3	5,1	4,0	11,4	5,8	6,8	8,2
Industria	2,3	6,5	2,8	3,4	1,7	4,8	2,0	3,4
Eraikuntza	0,2	1,2	1,5	0,7	0,1	2,4	-2,7	0,0
Zerbitzuak	-0,2	0,5	-0,5	0,0	0,2	-0,7	-0,8	0,1

Iturria: 1986tik 1994ra: estatistika-zerbitzua; 1994tik 1997ra: INE; EAEko estatistika-zerbitzua.

Euskal industriak, espainolaren antzera, ohiko arloetan dago espezialduta. Teknologia helduak eta eskuratzeko errazak direnak erabiltzen dira. Jarduera horiek lehiatzeko duten abantaila nahiko prezio merkeak izatean datza. Jarduera aurreratuetan, aitzitik, produktua bereizten saiatzen dira. EAEko lehiakortasun-posizioa atzean geratzen da, soldata-kostuak altuagoak dituelako.

## 2.4.- Europako Batasunarekiko merkataritza-harremanak

Euskal ekonomiaren ezaugarrietako bat kanpora irekita egotea da. Bai inportazioetan, bai esportazioetan. Barne-ekariaren %42 baino gehiago inportazioen bidez betetzen da, eta gehienak Espainiatik datoz. Horrekin batera, eskualdeko ekoizpenaren antzeko proportzioa kanpora doa. Ekonomia irekia, industrialia eta ekipo-ondasunekoa izateak nazioarteko zikloaren murrizketak

dakarkio. Eskualdeka egindako analisisiek erakusten dute merkataritza-bazkide nagusia Europako Batasuna dela. Izan ere, esportazioen bi herenak Europara doaz, eta inportazioen %70 handik datorkigu.

Industriaren barne-merkatuak zenbait arlo ditu oinarri, hala nola, makineria, metalak eta manufakturak. Zerbitzuak, ordea, inportatzekoak dira, bertakoak gutxi garatu direlako, orokorrean, eta saltzekoak direlako, zehatzago. Hirugarren sektoreak duen kanpoko menpekotasunagatik bi ondorio daude, biak kaltegarriak. Batetik, ez du uzten industriaren bultzada behar bezala aprobetxatzen zerbitzuen arloan, zuzenean, eta ekonomiaren hazkunderan zeharka. Bestalde, sektorearen balioa, enplegua sortzeko eta industriaren gorabehera ziklikoak baretzeko, gutxiegi erabiltzen da.

Europako Batasunean sartu ondoren, autonomia erkidegoek Batasuneko herrialdeekin dituzten merkataritza-trukeak ugaltu egin dira. Baina alde handiak daude erkidego batzuetatik beste batzuetara (7. taula). Merkatua gehien ireki dutenak Errioxa, Nafarroa, Gaztela eta Leon, Extremadura eta Galizia dira; eta gutxien ireki dutenak Kanariak eta EAE dira. Ekonomia- eta Diru-Batasunak nolako eragina izango du egoera horretan? Badirudi eraginkortasun gehiago irabaziko dela Batasun barruko eragiketetan, besteak beste, kostuak kentzean. Magnitudea kanporako irekitasun-mailaren gorabeheran dago, hau da, produktuaren inportazio eta esportazioen arteko proportzioaren arabera.

Etorkizunean eragiketa-kostuak kentzeagatik onura gehien aterako duten erkidegoak Europako Batasunarekiko irekitasun-indizerik handienak dituztenak izango dira. Hau da: Nafarroa, Aragoa eta Katalunia; baita uharteak ere, nazio-arteko turismo-zerbitzuak emateko abantailak baitituzte. Euskal Ekonomiaren irekitasun-mailak postuak galdu ditu Espainiako eskualdeen hurrenkeran; nahiz eta bigarren postu on batean hasi, Nafarroaren ostean eta Aragoaren parean. Irekitasun-tasa 1988ko %26'8tik 1996ko 30'9ra igaro da.

## **2.5.- Estuguneak eta ahalmenak**

Euskal ekonomia galtzen ari den garrantziaren ostean lehiakortasun-arazoa dago. Arrazoiak ugariak izan daitezke, batzuk orokorrak dira, nazioarteko krisiarekin loturikoak, eta beste batzuk zehatzak. Azken horien artean egitura-desorekak daude, hona hemen lau nagusiak:

## KANPORAKO IREKITASUN - MAILA (Europako Batasunarekiko)

AAEE	1.988	1.989	1.990	1.991	1.992	1.993	1.994	1.995	1.996	Batasbestez 88-96	Aldakuntza 88-96
Araukoak	8,5	8,3	8,2	9,1	8,2	8,7	10,2	11,3	11,3	9,3	2,8
Aragoi	26,9	27,9	28,3	25,8	28,1	33,4	42,1	44,8	44,9	33,5	10,0
Asturias	7,3	9,4	9,1	8,8	9,1	7,0	8,3	10,2	11,0	8,9	3,7
Batasunak	4,2	2,4	2,2	3,4	2,4	3,1	4,4	4,0	6,2	3,6	2,0
Kantabriak	11,5	10,8	9,4	8,2	8,1	8,4	8,4	8,4	7,1	9,0	-4,4
Katalunia	13,0	14,5	14,4	13,8	13,4	15,1	20,2	23	24,1	18,8	11,1
Gaztania-Mahoa	8,7	8,3	8,6	8,9	8,7	9,3	10,7	13,1	13,7	10,0	6,0
Gaztalia-Leon	14,3	18,8	17,8	17,9	20,6	22,7	28,8	30,1	31,9	22,3	17,6
Katalunia	26,1	26,2	26,4	26,1	28,5	28,3	33,1	36,4	38,6	29,7	12,5
Valentzia	20,3	19,7	19,1	20,4	19,9	21,2	25,1	26,1	27,4	22,1	7,1
Euzkumaduria	3,4	3,6	3,2	3,4	3,4	4,2	5,7	6,3	6,2	4,4	2,8
Galizia	12,1	13,3	13,6	13,1	13,2	17,3	20,1	21,0	24,5	18,5	12,4
Madri	21,3	22,3	22,3	21,9	21,2	19,3	23,2	23,6	26,1	22,6	6,8
Murtzia	13,2	13,0	12,6	12,8	11,9	13,8	15,8	15,5	19,5	14,5	8,3
Nafarroa	32,6	34,3	38,4	44,5	55,6	43,2	40,7	58,7	57,5	45,5	24,9
EAE	26,8	27,3	28,4	29,5	24,1	23,0	28,3	31,5	30,9	27,1	4,1
Errioxa	10,8	10,0	10,3	11,2	11,0	12,0	16,4	18,1	21,4	13,5	10,6
Espainia	17,9	18,4	18,4	18,5	18,6	19,0	22,6	24,3	26,0	20,4	8,1

Oinarri: Irteerakun-neki (CH)EPO-193  
 Iturri: Barren egite, Auzara Agintze eta Zerga Berriztatze Zuzendaritza Nagusia. Auzara eta Zerga Berriztatze Zuzendaritza Nagusia eta Zerga Berriztatze Zuzendaritza Nagusia eta Zerga Berriztatze Zuzendaritza Nagusia.

*Esparru-desoreka:* 1960ko hamarkadan industria-jarduera gehienak esparru jakin batzutan egiten dira —Bilbao eta Donostia inguruak—, hor pilaketa-desekonomia handiak daude (jendea metatu, urbanizazio eskasak, ingurugiroko kutsadura...) Horrekin batera, azpiegituretan gabezia handiak daude; oster, beste esparru batzuetan edo hazkunde-guneetan (Europako erdiko korridoretan, Mediterraneoko ardatzean...) hobekuntza nabarmenak egin dira.

*Sektore-desoreka:* Metal-industriaren espezializazio handia dela-eta (mineralak eta burdinezko metalak, mineralak eta metal gabeko produktuak, elikagaiak, metalurgia, papera eta bestelako industriak). Zerbitzuak, bestalde, oso gutxi garaturik daude, eta ezin dute berdindu bigarren sektorearen garrantzi-galera.

*Teknologia-desoreka:* I+G jarduerak egitera baliabide gutxi (publiko zein pribatu) bideratzen denez, teknologia inportatu behar da. Estatuan I+G delakoan egiten den ahalegina handia izan arren (BPGren %1'2), askoz txikiagoa da herrialde nagusietan egiten dena baino (%2'8 EE.BB., %3'5 Japonian, %2'1 Europako Batasunean). Ondorioa: kanpoko menpekotasun teknologikoa.

*Energia-desoreka:* batetik industria intentsiboa energia kontsumitzen, eta bestetik, petrolioaren morrontza ia erabatekoa. Horregatik izan zuen hainbeste eragin petrolioaren lehen krisiak.

### EAE - BATASUNAREN FONDOAK - ORDAINKETAK

	(en millones de pesetas corrientes)									
	1.986	1.987	1.988	1.989	1.990	1.991	1.992	1.993	GUZTIRA a 86-93	GUZTIRA a por hab.
FEDER	-	-	-	2473	4853	8.045	11572	19.199	32.112	15.139
FSE	2222	2133	2424	3676	2502	4880	7.249	8.166	26.890	12.201
FEOGA Orientación <sup>1</sup>	-	319	1121	3155	1041	3025	1214	4.705	10.845	5.113
Egitura Fondosok guztira	2222	2452	3545	9.304	8398	15.931	20.035	33.070	68.637	32.453
FEOGA-Garrantia <sup>2</sup>	142	1777	4829	4.382	6.151	7.388	5.661	4.740	26.904	12.684
Lotura Fondot <sup>3</sup>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>2.364</b>	<b>4.229</b>	<b>8.374</b>	<b>13.686</b>	<b>14.547</b>	<b>23.319</b>	<b>25.686</b>	<b>37.810</b>	<b>95.742</b>	<b>45.137</b>

Oharriak: (1) rekurrituko lehen bektoreko batzuekin belarri; (2) Autonomia Erkidegoari emandako fondotak zuzentzeko ordainketak lehen zituzten; FEOGAren konturik;

(3) Oneratutako zantzaritako (4) 1986ko portatzeak.

Iturria: M.D. Comas "Todas Comunidades en España. Regionalización y análisis de su incidencia" D66002; Planificación Zuzendutako Nagusiak; Diccionario de Ogasan Ministerioak.

### 3. EUROPAKO BATASUNAREN LAGUNTZAK, EAE-REN ALDEKOAK

EAEk daukan garapen-mailagatik ezin da 1. Helburuko eskualdeekin sartu. Hala ere, EAEko lurraldeak eta bertako biztanleek zuzeneko laguntzak jaso dituzte Batasunetik 1986. urteaz geroztik, Egitura Fondoan eskualde zein horizontaleko helburuen bidez, eta sektorekako programa zein ekimenen bidez. Analisia 1989-93ko eta 1994-99ko Batasuneko Laguntza Esparruetan (MAC) oinarritzen da.

#### 3.1.- Batasunaren laguntzak 1989-93

1989-93 aldian zehar, 392'97 milioi ECU (MECU) bideratu ziren EAera Egitura Fondoan 2 eta 5b Helburuaren Programa Eragilean bitartez. Dirukopuru horren %79'56 FEDERetik etorri zen. FSEk eta FEOGA-Orientación-ek %18'68 eta %1'58 jarri zuten, hurrenez hurren. Europako Batasunak 3 eta 4. helburuetako ekintzak ere onartu zituen. EAEk, orokorrean, 95.742 milioi PTA (MPTA) jaso zuen 1986 eta 1993 bitartean, Europako Batasunaren laguntza gisa (8. taula).

##### *3.1.1- EAEko 2. helburuko aldea*

Europako Batasunetik MACen bidez jasotako laguntzen artetik funtsezkoenak 2. helburuko programa eragileak izan dira, bai bideraturiko Egitura Fondoengatik, bai hartzen duten biztanleriagatik. Programa horien bitartez FEDERen 284 MECU eta FSEren 58'1 MECU bideratu ziren, eta haiei esker 958 MECU baino balio handiagoko eta eskualdeko biztanleen %99'7rentzako inbertsio proiektua kofinantzatu ahal izan dira.

Ezin da ahaztu EAE izan dela, eta dela, gainbehera etorritako Espainiako eskualdeetan garrantzi handikoena, izan duen hobekuntza ekonomikoa eta guzti. Diagnostiko horren ondorioz, 2. helburuko programazioan harturiko herri-ekintzak egitura-desoreka larriari aurre egitekoak ziren, eta era berean eskual ekonomia eraberritu eta birmoldatzeko asmoa ere bazuten. 1989-1993 aldian 2. helburuko aldean finantzaturiko inbertsioa hainbat arlotara joan da, eta funtzionalki MACen (9. taula) onarturiko lehenetsuneko ildoak jarraiki antolatuta dira.

1988-1993 (milioia ECUan)				
3. HELBURUKO ALDEA (FEDER)	Inbertsioa	%	Laguntza	%
1. ardatza: Ekoizpen-jarduerekin sortu eta garatzea	225,163	27,57	190,675	36,52
2. ardatza: Ingurugiroaren babesa eta hobekuntza	108,678	13,29	51,140	16,01
3. ardatza: Ikerketa eta garapenerako laguntza	57,898	7,06	28,833	10,15
4. ardatza: Komunikabideen sareak hobetzea	473,672	51,86	101,525	26,75
5. ardatza: Prestakuntza, erakunde eta jarrapenerako neurriak	1,639	0,20	1,039	0,58
<b>GUZTIRA</b>	<b>816,716</b>	<b>100,00</b>	<b>284,912</b>	<b>100,00</b>

Iturria: Ekonomia eta Piegintza Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza.

1. ardatzean, *Ekoizpen Jarduerak Sortu eta Garatzea* izenekoan, inbertsio-proiektu asko biltzen ziren, hurrengo xede hauek lortzeko asmoz: lehiakortasuna hobetzea, industria-azpiegitura sortu eta eraberritzea, zerbitzuak bultzatu eta sustatzea, eta energia-baliabideak dibertsifikatu eta garatzea. Buruturiko ekintzen artetik hauexek dira azpimarragarrienak: Kapital-Arriskua Baltzua eta Elkarrekiko Bermekoa sortzea —biak PYMEei finantza-merkatuen sarbidea errazteko—; euskal ekonomia nazioartera ateratzea —bertako enpresak kanpoko merkatuetan sustatuz—; enpresei ematen zaizkien zerbitzuak dibertsifikatzea (enpresen berrikuntza, kudeaketa-aholkularitza, antolamendua eta negozioarako aukera berriak); eta industria-azpiegiturako ekintzak. Orobat, gas naturalaren erabilera bultzatu da, energia-iturri gisa, bai industrian, bai merkataritzan, baita etxeetan ere. Gainera, gasez hornitzeko instalazioa egitean telekomunikabide aurreratuen sarea ere sartu da.

2. ardatzean, *Ingurugiroaren Babesa eta Hobekuntza* izenekoan, hondakinak, hirietakoak zein industriakoak, tratatzea, eta isurkinak zein igorpenak Batasuneko araubidearekin egokitzea. Horiek dira, besteak beste, Europako Batasunaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren adibideak.

Badira beste proiektu batzuk ere tartean: saneamendu-azpiegiturak ezartzeko proiektuak, zailtasunak dituzten aldeetako urak arazteko proiektuak, eta meategi-aldeak edo industria-jarduerengatik narriaturiko aldeak onbidertzeko proiektuak. Bizkaian tratamendu-planta bat eraiki zen, erabilitako olio birziklitzeko; horrela, isurkina ekiditeaz gain, erregai gisa erabiltzeko prest uzten du.

3. ardatzean, *Teknologia-ikerketak eta Garapenerako Laguntza* izenekoan, Europako Batasunaren laguntza erabakigarria izan zen Euskadiko Parke Teknologikoen sarea osatzean; izan ere, ekipamenduak hobetzen eta berrikuntza-proiektuak eta garapen teknologikoko proiektuak borobiltzen lagundu bait-

zuen. Azpimarratu behar da Zamudioko Parke Teknologikoa, Autonomia Erkidego honen goi-teknologiako lehenengo azpiegitura izan baita. Enpresaren arloan, 236 enpresak jasoko dituzte laguntzak, hobekuntza teknologikoko proiektuak beren ekoizpen-prozesuetan edo beren produktuetan ezartzeko.

4. ardatzean, Komunikabideen Sarearen Hobekuntza izenekoan, proiekturik deigarriena Bilboko Metroa izango da seguraski. Horren bidez Bilbao eta aldiriko herrietako komunikabide-arazo larriak konpondu, eta gainera, bidaie-tan emandako denborak erdira gutxitu dira, eta energia aurrezten ere aurrera-pauso nabaria izan da. Proiektuak, bestalde, oihartzun itzela lortu du atzerrian, diseinuaren berrikuntzagatik eta instalazioen funtzionaltasunagatik.

2 Helburuaren barruan, FSEk EAeri egin dion finantza-ekarpena prestakuntza-ikastaro ugariak izan dira, bai langile aktiboentzat, bai langabeentzat. Orobat, lanbidea birziklatzeko, eta teknologia espezialdu berriak ezartzeko neurriak ere ekarri ditu. Horien guztien jasotzaileak EAEko 70.000 bat bizilagun izan dira.

Osagarri moduan, EAEko 2. helburuan Batasuneko ekimen batzuk jarri ziren abian, hala nola, INTERREG I, RENAVAL eta STRIDE; nahiz eta 1989 aurretik hasitako Batasuneko sektorekako beste programa batzuek indarrean jarraitu (RESIDER I, STAR eta VALOREN). Sektoreen arloan, RESIDER I 1988-1990 programa siderurgia-sektorearen birmoldaketa jasan zuten eskualdeetarako programa zen. EAEn aplikatu zenean, enpresa-zentroak sortzea eta Bilboko Erakustazoka zabaltzea, besteak beste, ahalbidetu zituen. RENAVAL EAE 1991-1993 programaren bidez, krisian zegoen beste sektore bat, ontzigtza, Bizkaian eragin larria zuena, birmoldatu ahal izan zen. Hartara, ekoizpen-aktiboak sortu eta garatzeko, eta PYMEak sustatzeko inbertsioak egin ziren, eskualdeko ekonomia-jarduera dibertsifikatzearen, eta ingurugiroa babestu eta hobetzearen. STRIDE-Euskadik EAEko Teknologiko Plan Estrategikoa diseinatzen eta prestatzen ahalbidetu zuen, eta hori izan da ikerketa eta teknologian egin den lehenengo ahalegina plangintza bat egiteko. Programa hori dela bide, EAEko teknologia-zentroei informazioa, aholkularitza teknikoa eta ikerketa eskaini zaie, zentroek tokiko industriei ematen dizkieten zerbitzuak hobetu ditzaten. Azkenik, INTERREG-1-1991/93-Euskadi Espainia eta Frantzia bitarteko mugan jarri zen abian, aduanak kenteagatik eragindako aldeetan jarduera ekonomikoa dibertsifikatzeko. Horren bidez sortu ziren ekimen hauek: Garraio Zentroa (ZAISA), Txingudi Badiako urak

garbitzea, mugaz gaindiko lankidetza, eta Euskadi-Akitania lankidetza bezalako proiektuak.

### *3.1.2.- Euskadiko 5b Helburuko Aldea*

Europako Batasunaren beste laguntza batzuk EAeko 5b Helburuko Aldea garatzeko izan dira. Baserrialdea da, ez da zabala, EAeko lurraldearen %15'5 besterik ez da, eta bertan biztanleriaren %0'37 bizi da bakarrik. 1989-93 aldian, EB-k 6'75 MECU bideratu zituen lau xede lortzeko asmoz: nekazaritza-errentak hobetzea, enplegua sortzea, batez ere industria eta zerbitzu eremuetan, azpiegitura ekonomikoak eta gizarte-ekipamenduak garatzea, eta natur ingurunea aisialdirako gordetzea.

5b eskualdeetan, LEADER 1989-99 ekimena jarri zen abian. Inbertsio publikoak 1.842'1 MPTAkoak izan ziren, horietatik 188'5 MPTA Europako Batasunaren Egitura Fondoetatik zetozen. Inbertsio horiekin enpresa txikiak, eskulangintza, tokiko zerbitzuak eta, neurri txikiago batean, nekazal turismoko ekintzak sustatu ziren.

### *3.1.3.- Helburu horizontalak EAEn.*

Europako Batasunak 3 eta 4. Helburuak betetzeko laguntza eman zion EAeri 1990-92 urteak bitartean, eta hori dela eta, garrantzizko ekimenak eraman ziren aurrera bertako giza-baliabide produktiboen prestakuntza eguneratzeko asmoz. Giza-baliabideak aprobeztatuz eskualdeetako ekonomiaren susperraldia osatu nahi zen. Hori dela eta, hainbat neurri hartu zen prestakuntza teknologikoaren mailan eta oinarrizko prestakuntzazko eguneratzean. Era berean, lan finakoaren aldeko laguntzak eman ziren, jarduera independenteak sortu, eta, azkenik, emakume eta lana aurkitzeko zailtasun gehiago izan dutenen, hau da, ezindu eta emigranteen aldeko ekimenak jarri ziren martxan. Horrez gain, Europako Batasunak hiru ekimen hauek jarri zituen abian: EUROFORM, NOW eta HORIZON.

## **3.2.- Europako Batasuneko laguntzak (1994-1999)**

Eusko Jaurlaritzak eta lurraldeetako administrazioek honako garapen-motak bultzatu zituzten 1994-1999 urteak bitartean: batetik, aurreko epealdian hasitako sustapen ekonomiko-prozesua finkatu eta, bestetik, ekoizpen-honda-

mendiak eragindako arazo ekonomikoak konpontzen saiatu. Nolabait esateko, etapa berri honetako helburuak 1983-93. hamarkadako MAC deiturikoan ezarritakoen jarraipena besterik ez dira, hau da, Autonomia Erkidegoko ekonomiaren lehiakortasuna berreskuratzeari ematen zaio lehentasuna.

Europako Batasunak 1.249,69 MECU (1994) emango dizkio EAeri aipaturiko 1994-99ko MAC deiturikoaren bidez eta Egitura Fondoek kontura. Diru-laguntza hori 1.387,26 MECU-tara iritsiko da Kohesio Fondoak (10. taula) egindako finantzaketa kontuan hartuz gero. EBk emandako diru-laguntza horien artean 2. Helburua betetzeko emandako diru-kopurua da handiena, hau da, 709,44 MECU. Egitura Fondoek emandako diru-laguntzen kasuan, berriz, FEDERek 608,48 MECU eman zituen, FEOGA-Ok 57,18 MECU eta Arrantzarako Finantza Tresna edo IFOk 68,49 MECU. Kohesio Fondoek 137,67 MECU-tako dirutza emango dute 1995-1999ko epealdian.

EUROPAKO BATASUNAREN LAGUNTZAK 1994-99 (1994ko MECUtan)					
	FEDER	FSE	FEOGA	IFOP	GUZTIRA
4. HELBURUA	548,22	163,22	-	-	709,44
5. HELBURUA	-	278,8	-	-	278,80
6. HELBURUA	-	48,92	-	-	48,92
5a HELBURUA	-	-	35,47	61,79	97,26
5b HELBURUA	4,60	2,95	19,53	-	27,08
<b>Azpiguztira 1</b>	<b>550,82</b>	<b>493,69</b>	<b>55,00</b>	<b>61,79</b>	<b>1.161,30</b>
<b>EKIMENAK</b>					
INTERREG II	3,86	-	1,00	-	4,86
LEADER II	1,13	0,16	1,18	-	2,47
ARRANTZA	1,32	0,75	-	6,70	8,77
RESIDER I	36,11	-	-	-	36,11
HIRIGINTZA	8,93	1,08	-	-	10,01
ENPLEGUA	-	12,22	-	-	12,22
EGOKITZAPENA	-	7,70	-	-	7,70
PYME	6,25	-	-	-	6,25
<b>Azpiguztira 2</b>	<b>57,6</b>	<b>21,91</b>	<b>2,18</b>	<b>6,70</b>	<b>88,39</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>608,42</b>	<b>515,60</b>	<b>57,18</b>	<b>68,49</b>	<b>1.249,69</b>

Iturria: Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

### 3.2.1.- EAeko 2. Helburuko aldea

EAEk 2. Helburuko bi Programa Eragile ditu: 1994-96ko POPV eta 1997-99ko POPV deiturikoak. Europako Batasunak emandako laguntza horri esker, EAeko biztanleen %98rengan eragina izango duten 3.000 MECU-tako inbertsioak egingo dira EAEn eta lurralde osoko %63 suposatzen duen eremuan egingo dira inbertsio horiek. Inbertsio horiek hainbat urtetan zehar egingo dira eta ekintzak 5 ardatzen inguruan egituratuko dituzte (11. taula).

LEHENTASUNEZKO ARDATZAK 199-199 (1994ko MECU-ban)		
HELBURUKO ALDEA	Laguntza	%
1. ardatza: Enpleguaren eta enpresen lehiakortasunaren aldeko laguntza	216,439	39,82
2. ardatza: Ingarugilea babestea	81,048	14,84
3. ardatza: Ikerketa, teknologia eta berrikuntza garatzea	44,751	8,19
4. ardatza: Komunikabideak hobetzea	137,409	25,16
5. ardatza: Tokian tokiko eta hirietako garapena	82,557	11,46
6. ardatza: Laguntza teknikoa	4,045	0,74
<b>GUZTIRA</b>	<b>546,229</b>	<b>100,00</b>

Iturria: Ekonomia eta Merkatuzko Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzak.

1. Ardatza. *Enpleguaren eta enpresen lehiakortasunaren aldeko laguntza.* Ardatza honek helburu hauek ditu: ekoizpen eta kudeaketa sistemak bultzatzea eta industria dibertsifikatzea; nazioarteko posizioa hobetzea; merkataritza finantzea; lanbide-heziketa hobetzea eta azpiegituren garapena bultzatzea. Hona hemen, 1994 eta 1996 urteak bitartean aurrera eramandako ekintzarik nagusienak: inbertsioetarako finantza-laguntzak izan dira, AFI deituriko programari esker 33.000 milioi pezetako inbertsioak egin dira enpresa-proiektuetan; hainbat arlotako 19 elkarteri laguntza eman zaio euskal produktuak Euskal Herritik kanpo sustatzeko eta nazioartean Euskal Autonomia Erkidegoaren berri jakin dezaten jardunaldiak antolatzen; industria-pabilioi eta poligonoak eraiki dira; enpresei laguntza teknologikoa eman zaie, batez ere, industria-prozesuarekin eta material berriekin zerikusia duten enpresei, eta, azkenik, Mercedes-Benz Gasteizko lantegia handitzeko laguntza eman zaio, horrek enplegu-finkapenean eragina izango baitu.

Enpresei laguntzen jarraitzeko asmoa dago 1997-1999 epealdian ere, eta, zehazki, honako ekintzak egin nahi dira: enpresa txiki eta ertainek (PYME) merkatura iristeko edo finantza-bitartekariak lortzeko dituzten baldintza kaskarrak

hobetu; eskualdeko edo sektore garrantzizko enpresak nazioartean sustatu; produktuen kalitatea eta enpresen norgehiagoka bultzatu; teknologia garatu; esparru fisikoa antolatu, industria eta eskulangintza-aldeak ezarri; ekoizpen industrialia ingurura egokitu eta lanbide-heziketa iraunkorra eskaini eta enpresei eta langileei laguntza, orientazioa eta aholkuak eman.

2. Ardatza. *Ingurugiroa babestu eta hobetzea*. Hiriak eta industriak azkar eta kontrolik gabe hazi ziren 1960 eta 1970. hamarkadetan eta industriak berebiziko kalteak eragin zituen. Bigarren ardatzaren helburua kalte horiek gutxitzea da eta, bide batez, kalteturiko esparru horiek suspertzea. Ingurugiroan izandako eragina dela-eta, azpimarragarriak dira 1994-1996ko Programa Eragileari esker finantzaturiko proiektu hauek: hondatutako 30 industria baino gehiago suntsitu ziren eta, horrela, 132 Hektareetako lur narriatu berreskuratu. Kasu horretan, garrantzia handia izan zuen Bizkaiko Labe Garaien lurretan egindakoak, izan ere, Euskal Herriaren etorkizunean garrantzia handienetarikoa izango zuen enpresa-jarduerarik nagusia jarri baitzen martxan bertan, Altzairu Trinkoa deiturikoa, hain zuzen. Aurrekoaz gain, bertan behera utzitako hiri-inguruko hainbat harrobi ere berreskuratu ziren eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko erabili, bertan denbora pasa eta aisialdirako proiektuak eginez.

Inbertsio-programarekin jarraituko da 1997-1999 epealdian eta honetarako erabiliko da inbertsio hori: hondatutako industrigunea (meategiak, harrobiak, fabrikak, eta abar) berreskuratzeko eta erreka kutsatuak garbitzeko, industriak eragindako kaltea konpentsatu nahian. Era berean, hainbat sare eta zentro eta bestelako aurrezaintza-azpiegitura ere jarri nahi da abian ingurugiroaren kalitatea zaintzeko.

3. Ardatza. *ikerketak eta garapena bultzatzea*. Helburua, orain, teknologia berrien ikerketak bultzatzea da. Horren lekuko da 1994-1996 epealdiko programa; izan ere, programa horren helburua enpresa erabiltzaile eta Teknologia-Zentroen artean transferentzia-tresnak ezartzea baita; horretarako, batez ere, 250 ikerketa-proiektu orokor martxan jarriz, eta, epe ertainera eta luzera, euskal ekoizpen-sektorearen eskaerak betetzeko aurrez beharrezko jotako arloei lehen-tasuna emanez (ikus aparteko orria).

Hirugarren ardatz hau hiru ekintzetan oinarritzen da, 1997-1999ko Programa Eragilearen arabera: ikerketan, garapenean eta berrikuntzan, horien artean honako hauek aipa daitezkeelarik: ikerketa-zentroi diru laguntzak eman

eta Enpresen Ikerketa eta Garapen-egoera (I+D) hobetzeko inbertsioak bultzatzea; enpresak berritzeko zentroak eta teknologia-arloak eraiki eta garatzea; arlo aurreratuetan teknologia-azpiegiturak sortu eta bultzatzea; eta Unibertsitatean behar adina tresna garatzea, bertan goi-teknikariak, ingeniariak eta ikertzaileak prestatzeko.

4. Ardatza. *Komunikabideak hobetzea*. Kasu honetan helburua honako hau da: ekonomia aldetik ongi doazen eskualdeetako komunikazio-sarea hobetzea eta, bide batez, bertaratzeko dauden trabak kentzea. Horrek hainbat lan egitea eskatzen du eta, bereziki, honako lan hauek martxan jartzea: zenbait industrialdetako sarbideak; eskualderako interesgarri gerta daitezkeen trenbideak; hiri-garraiorako sareak, geltokiak eta elkarrekin loturiko azpiegiturak barne; antzeko ezaugarriko telekomunikazio-sareak eta portuetarako azpiegiturak. Ardatz honen arabera, epe erdira ekonomian izugarrizko eragina izango duen proiekturik nagusiena Bilboko portua handitzeko egingo diren lanak izango dira. Izan ere, birmoldaketa hori dela-eta, Bilboko portua zamak garraiatzeko eta banatzeko garrantzizko zentroa bihurtuko baita. Lanak 1999an amaitzea espero da eta, amaitu eta berehala hasiko dira zamaketa-lanak, eta zerbitzua kalitatezko baldintza egokietan eskainiko da, eta eskura egongo dira bertan zentro intermodalak, banaketa-etxeak, eta abar.

5. Ardatza. *Tokian tokiko eta hirietako garapena*. Ardatz honen barruan bada hainbat inbertsio enpresak sortzeko, langileak prestatzeko eta industriaren beheraldiaren ondorioz kalteturiko hiriak txukundu eta bertan gizarte-ekipamenduak ezartzeko. Beste ekintza batzuen artean, Galindoko araztegiaren proiektuari ekin zitzaion 1994 eta 1997 urteak bitartean. Proiektu horren helburua Nerbioi itsasadarra garbitzea zen; izan ere, itsasadar hori zen, hain zuzen, Euskadiko ibairik kutsatuenetarikoa. Nerbioi inguruan euskal biztanleen % 50 bizi da, Bilbao ere bertan dagoelarik. Bestalde, 1997-1999 urtealdirako beste proiektu hauek eramango dira aurrera: lanbide-ikastetxeak eraiki eta ekipatu, enplegua sustatu eta tokian tokiko garapen-agentziak jarri abian, hiri-inguru narriatuak babestu (berdeguneak barne), gizatalde berezientzako azpiegitura sozialak eta gizarte-berdintasuna bultzatu, eta turismo-etxeak berreskuratu, eraiki eta ekipatu.

Eusko Jaurlaritzak FSEren kudeaketaz arduratzen da eta horri eta FEDERen finantzaketari esker giza baliabideak eguneratu eta prestakuntza arloa hobetzeko neurriak har daitezke. Ehun mila pertsona baino gehiago joan ziren 1994-1996 urteetan egindako prestakuntza-ikastaroetara eta, zehazki, beharri-

zan hauek betetzeko prestaketak izan ziren: enpresaren kudeaketa, teknologia, komunikabideak eta beste hainbat alorretan enpresa-barruan ala kanpoan egindako lanbideak birziklatzeko planak, gremioak eta arte-lanbideak, ikerketa eta prestakuntzaren garapena, graduatuondoko prestakuntza eta lanean diharduten profesionalentzako edo langabezia dauden ertain eta goi-tituludunentzako espezializazio-bekak, arlo berrietarako prestakuntza, batez ere, kultura, kirola, ingurugiroa, nekazal turismoa, basoa eta beste hainbat arloekin zerikusia duen prestakuntza eta, azkenik, tokian tokirako eta eskualderako hainbat proiektu, bertan lanpostuak sortzeko eta lanbideak eguneratzeko, langabezia daudenei eragin, orientatu eta lanerako prestatzeko.

Honako bi ardatz hauek nagusitu ziren 1997-1999 denboraldiko programan: lehenik, lana dutenen eta ez dutenentzat hartutako lanbide-hezkuntza iraunkorrerako neurriak, langile eta enpresei emandako orientazio eta aholkuak eta lana aurkitzeko zerbitzuen hobekuntza. Bigarrenik, ingurugiroa babesteko eta garatzeko prestakuntza, langabetuentzako eta ingurugiroa ikertzeko laguntza. FSEk, bestalde, Lurralderako Hitzarmena eta Enpleguari buruzko Tokian Tokiko Ekimenetan parte hartzera eta horiek garatzera bultzatu ditu eskualdeetako gizarte-agenteak. Eusko Jaurlaritzak prestakuntza eta enplegu-zerbitzuak deszentralizatzeko joera hartu du, eta berariaz hartu du erabaki hori, gainera, hiritar bakoitzaren beharrak bete asmoz. Horrela, parte hartzea eraginkorra izatea lortu nahi du, erakundeek ekimenak koordinatu, arrazionalizatu eta baliabideak ongi aprobetxatzea.

### *3.2.2.- EAEko 5b. Helburuko aldea.*

Aurreko epealdian bezala, orain ere, EAEko baserri munduaren garapenak badu 5b deituriko eskualdeetarako berebiziko programa. Aipatu beharra dago 1994an Europako Batzordeak EAEko beste herri eta eskualde batzuk sartu zituela bere 5b. Helburuko eskualdeen artean, Arabako bi eskualde (Arabako Errioxa eta Gorbeia) eta Bizkaiko zenbait eskualde. Eta hori dena, orain arteko 2. Helburuko eskualdeen kaltetan. Beraz, 5b. Helburuko eskualdea 58 udalek osatzen dute, 2.657,7 km<sup>2</sup> (euskal lur eremuaren %37) eta 41.828 biztanle ditu (biztanle guztien %2). Egitura Fondoekin batera finantzaturako ekimenak, kasu honetan, FEDER, FSE eta FEOGA-O, horiek guztiak programa bakar batean bateratu dira, DOCUP 1994-1999 deiturikoan, hain zuzen. Finantzaketa horrek baserriko hirirako emigrazioarekin eta baserriko ekonomia ahularekin amaitu nahi du eta baserriarren bizi-kalitatea hobetu. DOCUPek bost ardatza nagusi ditu:

1. Ekonomiaren garapenerako behar diren azpiegiturak bultzatzea, base-rialdeko 170 bide egiteko eta 3.400 Hektarea lur ureztatzeko.
2. Jarduera dibertsifikatzea eta lana sortzea, zuzeneko edo zeharkako nekazaritzako elikagai-enpresetako proiektuei laguntza emanez. Aurreko neurri horiek osatzeko honako hau egingo da beste arlo batzuetan: industriallurrari dagokionez, neurriak hartuko dira, ikerketa eta garapen teknologikorako bi zentro eraikiko dira eta industria, zerbitzu eta aisialdirako laguntza izango da, horrela, 200 lanpostu baino gehiago sortuz.
3. Baliabide naturalak eta ingurugiroa garatzea, eta, zehatzago, inguru naturala babestu eta aniztasun biologikoa kontserbatzea. EAEn bada hainbat ingurune babesa merezi duenik eta horiek birmoldatzeko Europako Batasuneko laguntza jasoko duenik.
4. Baserri munduko bizimodua hobetzea, etxeetako bizigarritasuna eta oinarritzko hornigaiak, ura eta elektrizitatea barne. Proiektu horiek 25 udalengan jarriko dira martxan, eta, horrela, bertan bizi den 18.000 biztanlek hobetuko du beren bizi-kalitatea eta tokian tokiko garapena suspertuko.
5. Giza-baliabideak hobetzea eta langileak eta enpresariak profesionalizatzea. Hori dela-eta, 650 ikasle baino gehiagorentzako prestakuntza-ikastaroak antolatu dira, baita enplegua sustatzeko laguntzak ere.

Europako Batasuneko FEOGA-Ok 35,47 MECU-tako diru-laguntza emango dio Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzari. Laguntza hori 5.a Helburu bezala bideratuko da, eta ondorengo eginbehar hauetarako: nekazal egiturak eta nekazaritzako elikagai-enpresak hobetzeko, basoak kontserbatzeko eta sutearen kontra jarduteko. Eta, gainera, IFOPeK 61,79 MECU emango ditu 1994-1999 urteak bitartean euskal arrantza berritzeko eta birmoldatzeko, aipaturiko 5.a Helburuan oinarrituz..

### *3.2.3.- Helburu horizontalak EAEn.*

Hirugarren Helburuari gagozkiolarik, FSEk, gerora begira, 278,6 MECUko diru-laguntza emango dio EAeri. Diru-kopuru horretako 155 MECU eskualdeanitzeko markoaren baitan banatuko dira eta administrazio zentralerako prestakuntza eta hezkuntzako erakundeek, eta, batez ere, INEMek kudeatuko du, bestea, hau da, 124 MECU eskualde-markoaren baitan.

Gobernu autonomikoaren helburuen arabera, langabezian daudenentzat antolatu dira programa eta prestakuntza-neurriak, batez ere, langabezian luzaroan daudenentzat, gazte langabetuentzat eta lan mundutik kanpo gelditzeko arriskua dutenentzat, eta denek aukera berdina izan dezaten saiaturako dira. FSEren 3. Helburuko diru-laguntzaz baliatu direnak 153.000 pertsona izan ziren 1994 eta 1997 urteak bitartean. Administrazio zentralak kudeatzen du, FORCEM bidez, 4. Helburuko DOCUP delakoa. Hori dela eta, 48,9 MECU emango ditu langileak lan-baldintza berrietara egokitzeko.

### **3.3.- Europako Erkidegoko ekimenak**

Europako Batzordeak hamahiru ekimen erabaki ditu bere kideentzat 1994-1999 urtealdirako. Horietatik zortzitan hartuko du parte eta aprobetxatuko da EAE. Europako Batasunak EAeri 88,9 MECUtako diru-laguntza eman go dio, herri-inbertsioak egiteko. Inbertsio horiek honetarako erabiliko dira: siderurgia birmoldatzeko, tokian tokiko enpresa txiki eta ertainak berritzeko, baserri mundua garatzeko, giza-baliabideetarako edo herri eta hiriak suspertzeko. Helburu hauetariko batzuek aurreko denboraldiko programan ere aurrera eramane ziren eta, beraz, haien jarraipena besterik ez dira. Horien artean, aipatzekoak dira: INTERREG II, RESIDER II, LEADER II eta, nolabait ere, beste hauek ere bai, EMPLEGUA ETA GIZA BALIABIDEEN GARAPENA (azken horrek aurreko NOW eta HORIZON bere baitan hartzeaz gain, badu gazteei eskainitako kapitulu berria). Ekimen horiez gain, badira beste hauek ere: ADAPT, ARRANTZA, URBAN eta PYME.

ADAPT. Ekimen horrek izugarriko jokia eskaintzen du, eta, bestek beste, honetarako erabiltzen da: prestakuntza eta aholkularitza garatzeko proiektu berritzaileak martxan jartzeko, enplegu-aukera berriak eta sareak bultzatzeko eta, gainera, sentsibilizazio, hedapen eta informazio-neurriak hartzeko programak. EAEk badu hainbat proiektu arlo horretan, eta FSEk 7,70 MECU ematen ditu horretarako.

ARRANTZA-Euskadi, programa bat da, krisialdiari aurre egiteko sortu eta EAeko Arrantza Arloko Plan Estrategikoaren barruan kokatzen den programa, hain zuzen. Beraz, programa hori itsasotik bizi diren 100 udaletan aplikatzen da. "Euskal itsasbazterra" deituriko esparruak 1.956 km<sup>2</sup> ditu eta bertan 1.513.315 biztanle bizi da. Ekimen horretako programen helburuak honako hauek dira: arrantza-enpresak errentagarri bilakatzea eta arrantza-produktuak

eraldatu eta merkaturatzea, enpresei laguntza teknikoa eta logistikoa ematea eta langileen lanbide-gaitasuna hobetzea. Ahaleginak egingo dira produktuak dibertsifikatzeko nazioarteko merkatuaren gora-beheretara hobeki egokitzeko asmoz.

URBAN ekimena, URBAN/Barakaldo-Euskadi programaren inguruan egituratu da, siderurgiaren krisialdiak jota gelditu den Nerbioi-ekerraldeko udal nagusienetarikoa herri horretan, hain zuzen. Ekimen horrek erabat hondatutako lurralde hori eta bertako ingurunea suspertzea du helburu. Beraz, aurrera eraman beharreko ekimenen artean berebiziko garrantzia du ekonomia-jarduera berriak abian jartzea. Horretan ahitzen da inbertsio osoaren %48.

Azkenik, badira eskualdean zenbait erakunde enpresa txiki eta ertainen alde dihardutenak, lehentasuna enpresa horien merkatu-norgehiagoka areagotzeari ematen diotenak, horretarako enpresa arteko elkarlan-proiektuak, informazioa, ukiezinak, finantzaketa eta lankidetzaren sareak bultzatuz.

## 4. EUROPAKO LAGUNTZAREN ERAGINA EAE-N

Euskal Autonomia Erkidegoa 2. Helburuko Lurraldea denez, EAERI ematen dizkioten laguntzak ezin konpara daitezke 1. Helburuko Lurraldeko herri behartsuei ematen dizkietenekin. Hala ere, Europako diru-laguntzak garrantzi handikoak izan dira lehen eta orain ere, bai kuantitatiboki, bai koalitatiboki.

Aurrera eramandako programa eta ekimenek eragin nabaria izan dute bertako eskualdeen susperraldian, nahiz eta jarduerak ebaluatzeko sistema homogeneorik ez egon eta horrek ezinezkoa bihurtu Europako diru-laguntza horien eragina zenbatekoa izan den aipatutako eskualdeetan. Hala ere, eragin positiborik nabariena azpimarra daitezke.

Lehenik, EAE-barruko garapen-ahalmena, hau da, tokian tokiko eta eskualdeetako garapen-ahalmena indartu egin da. Horren lekuko dira, besteak beste, honako emaitza hauek: finantza-tresna berriak, zerbitzu-eskaintza anitza eta, batez ere, ekoizpenarekin zerikusia duten zerbitzu aurreratuak, hala nola, industria-lur gehiago eta hobea izatea, jarduera ekonomiko berriak sortzea eta enpresa-zaletasuna berreskuratzea.

Bigarrenik, Europako Batasunarekin batera finantzaketan parte hartu izanak hurrengo ondorio hauek izan ditu: lurraldea, zatika bada ere, berrantolatu egin da, lurra zentzuz banatu da, bertan behera utzitako eta maldan behera joandako industria-arloak eta eskualdeak berpiztuz, eta, horren ordez, lur-esparru txukunagoak sortuz. Gizarteak gero eta garrantzia handiagoa ematen baitio ingurua garbi edukitzeari eta bertako bazterrak zaintzeari. Enpresariak eta familiek energia garbiak erabiltzeak inguruaren hobekuntza eragiteaz gain, energia aurrezteak ere ekarri du.

Aurrera eramandako ekitaldien artean aipagarriak dira azpiegitura-lanak. Nahiz eta horietako batzuk ez diren oraindik eratu, azpiegitura horiek eragin positiboa izan dute bideak eta industria-sarbideak hobetu direlako, eta hiri eta industrialde handietako garraio-deseconomia murriztu delako. Luzarora begira, proiektu horiek -batzuk tamaina handikoak, Bilboko portu autonomoaren birmoldaketa, adibidez- zeresan handia izango dute eskualdearen garapen ekonomikoan, bertako ingurunea erabat hobetuko delarik. Hori dela eta, dagoen industria bertan geldituko da eta berriak etorriko dira.

Gaurko egoera zail honetan positiboki baloratu behar da giza baliabide mailan egindako ahalegina; izan ere, hutsune edo defizitak non, ahalegin gehien han egin baitira, eta hiritar askoren gaitasuna eta lanbideak egokitu eta hobetu. Lanik gabeko giza taldeetan jarri da arreta: helduengan, batetik, gehiago ekoiztu dezaten eta teknologia berrietara lehenbailehen egoki daitezen eta gazteen gan, bestetik, lehenbailehen lan munduan sar daitezen.

Europa Batuarekin batera finantzatutako ekimenak eta martxan jarritako programak eta helburuak ongi ari dira betetzen. Hori da, behintzat, horretan diharduen hainbat administrazioen ustea, ebaluazioa egin ondoren, nahiz eta oraindik ez diren oso ohikoak. Azpimarragarriak dira, besteak beste, ingurunea hobetzearen eta babestearen alde egindako lana eta arlo horretan lortutako emaitzak. Europarekin batera finantzatutako ekimenei esker lortu da, bestalde, desoreka ekonomiko eta soziala gutxitzea eta lehentasunezko proiektuak egitea, bestela ezinezkoa izango baitzen horrelakorik egitea edo, herri-inbertsioaren atzerapena ikusita, guztiz atzeratuko baitziren proiektu horiek.

Era berean, positiboki baloratu beharra dago eskualdeak garatzeko era berria abian jarri izana, batez ere, eragile askoren partaidetza eta "lankidetzak" publiko eta pribatu ugari martxan jarri izana. Elementu hori guztiz berritzailea eta kalitatezkoa da eskualdeen garapena aurrera eramateko. Martxan jarri, Egitura Fondoetarako Zuzendaritza Orokorren aholkuei esker jarri da martxan hemen. Eta gainera, enpresak garatzeko eta herriak eta eskualdeak berritzeko tresna lagungarriak eta berriak jarri dira abian poliki-poliki. Egitura Fondoetako kudeaketa-unitateen arteko harremanak direla-eta esperientziak eta ikasketak trukatu dira. Guzti hori lortu bada, Europa Batuak tokian tokiko eta eskualdeko elkarlana bultzatu duelako izan da; izan ere, Europako 2. Helburu diren eskualdeen arteko harremanak, informazioa eta ezaguerak trukatzeko erraztu baitu horrek.

Heldu den mendean Euskal Herriak ekonomia eta gizarte-birmoldaketan duen egitekorik nagusia langabeziari aurre egitea izango da, agian. Dena den, eskualdeetan lanpostuak sortzea herri-administrazioaren ahalegina izango da, zalantzarik gabe, baina euskal enpresen merkatu-norgehiagoka zainduz.

## TEKNOLOGIAREN EUSKAL SAREA

Euskal Herriko babespeko Ikerketa-zentroen proiektua 1992-1993ko Programa Eragilearen 2. Helburuaren baitan ezarri zen lehen aldiz. Eskualdean zeuden hainbat teknologia-enpresa bultzatzea zuen helburu. Enpresa horiek pribatuak ziren, nahiz eta Euskal Administrazioaren babespean jardun. Egitura Fondoetatik jasotako diru-ekarpena 3,8 MECUtakoa izan zen, eta FEDER erakundeak eman zien. Aipatutako Zentro horietako bakar batzuek jaso zuten ordurako Europako diru-laguntzaren bat, 1991. urtean hasi zen STRIDE Programa bidez.

Zentro horiek honako helburu amankomuna zuten, nahiz eta bakoitza bere arlo teknologikoan jardun: industria garatzea eta euskal enpresak etengabe teknologia eta antolakuntza berrietara egokitzea, ikerketa aplikatua eta garapen teknologikoaren bidez. Horretarako, beharrezkoa izan zen elkarlaneko eta koordinazioko teknologia-politika eramatea. Honako zerbitzuak eskaini zituzten: kontratupeko ikerketa-proiektuak, informazioa eta aholkuak, bideragarritasun-azterketak, produktu eta prozesu-saiakerak eta egiaztagiriak eta prestakuntza-ikastaroak. Azpiegitura horiek bertako industriaren etorkizunerako zuen garrantziaz ohartu zen Eusko Jaurlaritzak eta bere 1993-1996ko Industria-Teknologiaren Planeko zutabeetariko bat bihurtu zituen Babespeko Teknologia Etxe horiek eta horrela, jakinarazi zuen 1994-1996ko Programa Eragilearen 2. Helburuan.

Lortutako emaitzak apartekoak izan direla esan daiteke. Europa Batuko Kohesio Ekonomikorako eta Eskualde-Politikarako XVI. Zuzendaritza Orokorrak, behintzat, lana sortzeko Europako lehen hamar programen artean kokatu zuen (European Job Challenge), 1998. urtean. Aipatutako proiektu horri esker 726 lanpostu zuzen sortu zituen zuzenean teknologia-enpresa horietan, eta zeharka beste 6.742 lanpostu elkarlaneko enpresetan 1993-1996 urteak bitartean. Horrez gain, beste "spin-off" erako 17 teknologia-enpresa sortu ziren eta eragindako inbertsio orokorra 117.200 MPTAraino iritsi zen. Lanpostu-finkatzeari buruz ere, datuak oso aipagarriak izan ziren: 911 lanpostu berri sortu ziren zuzenean enpresa horietan eta zeharkako beste 54.469 elkarlaneko enpresetan. Teknologia aldetik, Enpresa horiek Ikerketa eta Garapenerako 412 proiektu egin zituzten, batez beste, 450 euskal enpresetan, batez ere, enpresa txiki eta ertainetan (PYME). Era berean, Europako 98 proiektutan hartu zuten parte (BRITE/EURAM, ESPRIT, CECA...), 4.066 laguntza tekniko eta txosten espezializatu eskaini eta 70 ikastaro eta jardunaldi eman, bertan 900 enpresetako 1.400 partaide izan zirelarik. Aparteko emaitza horien lekuko dira, EBren laguntzaz, proiektuak Argentinan eta Brasilen emandako emaitzak. Orain Venezuelan, Kolonbian eta Mexikon ere horretan dihardute antzeko proiektuak aurrera eramateko asmoz.

Horrela, 1996. urte amaieran, teknologia-zentro horiek euskal ekonomiaren oinarrikerik sendoenetariakoak ziren, zaharbertzeari eta garapen ekonomiko-sozialari begira. Beraz, beharrezkoa zen teknologia-nagusitasun hori sendotzea estatu eta nazio-artereko espezialitate estrategikoetan. Aurreko proiektuak izandako arrakastak eraginda, Eusko Jauraritzak plan hori handitu egin du, hau da, 1997-2000 urteetarako Teknologia eta Zientzietarako Plan berriaren barruan sartu baitu "Euskal Teknologia Sarea" deiturikoa. Plan hori Europa Batuko XIII. eta XVI. Zuzendaritza Orokortetako Programa RIS-Regional Innovation Strategy deiturikoan kokatzen da. Sare horrekin ondorengo hau garatu nahi da: "Egitura azkarra, sarean lan egingo duena, bezerotik hurbil eta merkatuarekin bat eginik eta enpresariei osotasunezko eskaintza espezializatua eskainiko diena". Sare horren arima 9 Teknologia Zentroek osatzen dute, teknologia eskaintzen duten beste erakunde batzuk ahaztu gabe. Proiektu berri horrek ere izango du Europa Batuko laguntzarik 1997-1999. urte bitarteko Programa Eragilearen 2. Helburuan oinarriturik. Zehatz-mehatz esateko, kostua, oro har, 65 MECUtakoa izango da, FEDER erakundeak horietako %50 emango duelarik.

## OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

BBV "Informe Económico 1997", Bilbao 1998

COMISIÓN EUROPEA "Fondos estructurales comunitarios 1994-1999. Textos reglamentarios y comentarios", OPOCE, Luxemburgo 1993.

COMISIÓN EUROPEA "España. Marco comunitario de apoyo. Objetivo nº 2 1994-1996. ", Bruselas 1994.

COMISIÓN EUROPEA "España. Marco comunitario de apoyo 1994-1999. Objetivo nº 1. Desarrollo y ajuste estructural de las regiones menos desarrolladas", OPOCE, Luxemburgo 1996.

COMISIÓN EUROPEA "Primer informe sobre la Cohesión económica y social 1996", OPOCE, Luxemburgo 1997.

COMISIÓN EUROPEA "España. Marco comunitario de apoyo. Objetivo nº 2 1997-1999", Bruselas 1997.

COMISIÓN EUROPEA "Guía de iniciativas comunitarias 1994-1999", OPOCE, Luxemburgo 1998.

COMISIÓN EUROPEA "El impacto de los Fondos estructurales en España", Infopress.

COMMISSION EUROPÉENNE "L'impact des politiques structurelles sur la cohésion économique et sociales de l'Union 1989-1999", OPOCE, Luxemburgo 1997.

CORREA, M.D., FANLO, A., MANZANEDO, J. y SANTILLÁN, S. "Fondos comunitarios en España: Regionalización y análisis de incidencia". Ministerio de Economía y Hacienda, Dirección General de Planificación, D-95002, 1995.

CORREA, M.D. y MALUQUER, S. "Efectos regionales del presupuesto europeo en España", Generalitat de Catalunya, Institut d'Estudis Autònoms, Barcelona 1998.

EUROSTAT "Regiones . Anuario estadístico" OPOCE, Luxemburgo 1997.

EUROSTAT "Statistiques en bref. Régions" (Varios números), OPOCE, Luxemburgo.

FUNCAS "Las comunidades autónomas en 1997", Cuadernos de Información Económica, nº 132-133, 1998 (Esta publicación dedica todos los años un número monográfico al tratamiento de la evolución coyuntural de las comunidades autónomas. Varios de estos números han sido utilizados en la preparación de este documento).

FUNDACIÓN BBV "Renta nacional de España y su distribución provincial 1993. Avance 1994-1995", Bilbao 1997.

FUNDACIÓN BBV "Renta nacional de España. Síntesis 1993. Avance 1994-1995", Bilbao 1997.

INE "Encuesta de Población Activa" (Se trata de una publicación trimestral de la que se han utilizado diversos números en la preparación de este documento).

MINISTERIO DE ECONOMÍA Y HACIENDA "España. Plan de reconversión regional y social 1994-1996. Zonas españolas incluidas en el Objetivo nº 2 de los Fondos Estructurales Comunitarios", Madrid 1994.

MINISTERIO DE ECONOMÍA Y HACIENDA "Plan de desarrollo regional 1994-1999. Regiones incluidas en el Objetivo nº 1 de los Fondos Estructurales Europeos", Madrid 1994.

MINISTERIO DE ECONOMÍA Y HACIENDA "La programación regional y sus instrumentos. Informe anual 1997", Madrid 1998. (Distintas ediciones de este informe anual han sido utilizadas en la preparación de este documento).

VILLAVERDE CASTRO, J. "Diferencias regionales en España y Unión Monetaria Europea", Pirámide, Economía XXI, Madrid 1998.

Nota: Además de las publicaciones reseñadas, la elaboración de este documento ha requerido, para cada comunidad autónoma, la utilización de los correspondientes Planes Operativos y Documentos Únicos de Programación, así como el empleo de información suministrada directamente por distintas Direcciones Generales de la Comisión Europea. De igual manera, se ha hecho un uso amplio de los números de *Papeles de Economía Española (Serie de Comunidades Autónomas)*, editados por FUNCAS, y de los de *Situación (Serie Estudios Regionales)*, editados por el BBV, debido al tratamiento a fondo que efectúan de la economía de las distintas regiones españolas.

## EUROPARKOMUNITATEEN BATZORDEA

Espainiako Ordezkaritza

Paseo de la Castellana, 46

E-28046 MADRIL

Telefonoa: 91 431 57 11

Bilduma honetako informazioak Europar Batzordearen Zuzendaritza Orokor eta Zerbitzu desberdinek emandako materialetik prestatu dira. Ekonomia eta Haziendako Ministerioaren Plangintzako Zuzendaritza Nagusiaren eta Autonomi Elkartetako Zerbitzu desberdinen laguntza ere jaso da.

### *Izazketa:*

Patricio Pérez González

(Kantabriako Unibertsitateko Ekonomia aplikatuko irakasle titularra)

María Ángeles Díez López

(Euskal Herriko unibertsitateko Ekonomia aplikatuko irakasle elkartua)

### *Koordinazio orokorra:*

José Villaverde Castro

(Kantabriako Unibertsitateko Analisi Ekonomikoaren Oinarrien katedraduna)

### *Ikuskapen teknikoa:*

Aurrezki Kutxa Konfederatuen Fundazioa (FUNCAS)

### *Itzulpena:*

IVAP Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea

Itzulpen Zerbitzu Ofiziala

Bisortze baimendua, merkataritza-helburuekin izan ezik, iturburua aipatuz gero.